

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa ondo funtzionatzeko eta merkatuan arrakasta izateko funtsezko baliabide batzuk behar ditugu.

→**Baliabide fisikoak:**

Baliabide fisiko nagusia sentsoredun pultsera da. Horretarako, sentsore teknologikoak, pultseraren egitura (erloju baten antzekoa), geziak dituen pantaila sinplea, bateria eta materialak desberdinak behar ditugu (metala, soka...). Gainera, pultserak diseinatu eta probatzeko ordenagailuak beharko ditugu. Azkenik, festibal eta jaialdietan saltzeko postu sinpleak (stand modukoak) ere beharrezkoak izango dira.

→**Baliabide intelektualak:**

Proiektu honetan baliabide intelektual nagusia erabili dugun ideia da. Era berean, pultseraren sistema, lagunak sentsoreen bidez aurkitzeko aukera ematen duelako. Horrez gain, pultseraren diseinua pertsonalizatzeko aukera, markaren irudia (izena, logoa, estiloa) eta produktuaren kontzeptua orokorrean ere baliabide intelektualak dira.

→**Giza baliabideak:**

Proiektua aurrera eramateko, taldeko kideen gaitasunak funtsezkoak dira, Teknologia arloan ezagutza pixka bat duen pertsona bat behar dugu pultseraren funtzionamendua garatzeko; diseinuan sormena duen norbait pultseraren itxura eta pertsonalizazio aukera lantzeko; eta azkenik, salmenta eta antolaketa gaitasunak dituen pertsona bat festibaletan saltzeko eta bezeroekin harremanak izateko.

→**Finantza-baliabideak:**

Hasierako finantza-baliabideak gure aurrezkietan oinarrituko dira. Diru hori erabiliko dugu materialak erosteko, pultserak ekoizteko eta horiek salduko ditugun standak prestatzeko. Proiektuak arrakasta badu, etorkizunean diru-laguntzak edo inbertsore txikiak bilatzea ere aukera bat izango litzateke enpresa handitzeko.